

Bueltan da **PARKETARRAK** egitasmoa: urrian zehar Goikoplazan eta Zumea plazan

- Goikoplazan (eguraldi txarra eginez gero, Nafarroa plazan): urriaren 8, 15, 22 eta 29an; Zumea plazan: urriaren 9, 16, 23 eta 30ean.
- 3 eta 5 urte bitartekoak 17:00etik 18:00etara (beti ere heldu baten laguntzaz)
- 6 eta 9 urte bitartekoak 18:00etik 19:00etara

Andoainen, 24-10-03.- Andoaingo Udalak **PARKETARRAK** izeneko egitasmoa jarriko du martxan udazken honetan ere.

Egitasmoaren ardatzak, honako hiru dira:

- Familiei eta haurrei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea
- Familiak eta haurrak euskararen inguruan biltzeko gunea sortzea
- Auzo eta herrietako jolasguneetan euskararen presentzia areagotzea

Horretarako, urriak 8, 9, 15, 16, 22, 23, 29 eta 30 egunetan, Hezten enpresako jolas dinamizatzaileen laguntzaz, Goikoplazan (astearteetan) eta Zumea plazan (asteazkenetan) burutuko dira programa hauen saioak:

ZABU ZIBU: 17:00-18:00etara; **3 eta 5 urte** bitarteko haurrak dituzten **familiarentzat**. Helburua euskaraz jolastu ahal izateko tresnak eskaintzea da, beraz, **behar beharrezkoa da haurrak guraso edo helduren batekin etortzea eta jolastea.**

TXIRRINTXON: 18:00-19:00etara; **6 eta 9 urte** bitarteko haurrentzat.

Aurretik ez da izena eman behar, nahikoa da bertaratzea.